



Mugaz gaindiko kirol lankidetzari buruzko IX. mintegia

TXOSTENA

2008ko urriak 31

**Figueras
Comarca de l'Alt Empordà (Cataluña)**

Mugaz gaindiko kirol lankidetzari buruzko IX. mintegia

EGITARAUA

Urriak 31

08:45.- Harrera eta dokumentuak eman.

09:00.- 09:15.- Inaugurazio ofiziala.

09:15.- 09:30.- Mintegiko gai nagusiaren aurkezpena.

09:30.- 11:30.- Mugaz gaindiko eremuetan aldebiko harremanei eta kirol jardueren antolaketari buruzko kasu praktikoak:

09:30 h. - 10:00 h.: Bera Bera R.T. (Gipuzkoa).

10:00 h. - 10:30 h.: Ayamonte-ko Udala (Huelva).

10:30 h. - 11:00 h.: C.H.H. Txuri Urdin (Gipuzkoa).

11:00 h. - 11:30 h.: Vielha-ko Udala (Lleida).

11:30 – 12:00.- Atsedena, kafea.

12:00 – 14:00.- Aurkeztutako hitzaldien gaineko eztabaida eta ondorioak.



eurored del deporte



PARTAIDEAK

Iñaki Ugarteburu Artamendi, Diputación Foral de Gipuzkoa.
Julián Gómez Fuertes, Diputación Foral de Gipuzkoa.
Eduardo González González, Kirol Management S.L.U.
Rosa María Morcillo Peña, Kirol Management S.L.U.
Carles Ramonet Costa, Consell Comarcal de l'Alt Empordà.
Antonio Pérez Pérez, Servicio de Deportes. Junta de Andalucía.
Kote Olaizola Sañudo, Bera Bera R.T.
Oiane Saratxaga, Bera Bera R.T.
Xabier Tife Susperregi, Ayuntamiento de Hondarribia.
M^a Pilar Fuertes Azpillaga, Consorcio Transfronterizo Bidasoa-Txingudi.
Iñaki Bolea, C.H.H. Txuri Urdin
Luciano Díaz Martínez, Fundación Deporte Galego
Javier Rico Díaz, Fundación Deporte Galego
José Antonio Fernández Susino, P.M.D. Ayamonte
Claude Laban, Conseil General Pyrenées Atlantiques
François Rodríguez, Mairie de Perpignan
Jaume Roure, Mairie de Perpignan
Francesc Moñino Turróm, Ajuntament de Castelló d'Empúries
Sergi Aznar , Ajuntament de La Jonquera
Xavi Crespo, Consell Comarcal de l'Alt Empordà
Ckaudi Ouig Barris, Ajuntament de Mollet de Peralada
Josep Pujols Romeu, Representació Territorial d'Esports Girona
Irina Pérez Aymerich, Consell Esportiu de l'Alt Empordà, Figueres

ONDORIO OROKORRAK

1.- Baimenak tramitatzea. Hizlariek azaldutako metodologietatik eratorritako lehen gaia aurkeztu da: a) Tramitazio bateratua edo Donostiako Bera Bera klubak erabiltzen duen eredua -bi administrazioen aurrean kudeatzen ditu baimenak-, edo Guadianan erabiltzen den metodologia -egile bakoitzak bere administrazioaren aurrean kudeatzen ditu baimenak-. Beraz, ondorio gisa esan dezakegu eremu geografiko bakoitzeko antolaketaren arabera aritu behar dela. Nolanahi ere, oztopo fisikoak desagertu egin dira, baina ez, ordea, administrazioari edo ohiturei dagozkienak; gainera, pertsonak dira elementu garrantzitsuenak eta beraiei dagokie erantzukizuna, neurri handi batean behintzat (lankidetzarako jarrera).

2.- Elementu geografiko komuna aprobetxatu behar da eta aukera gune bihurtu; lehen bereizteko elementu zena orain elkartzeko elementu izan daiteke (ibai bat, mendikate bat, eta abar).

3.- Denon artean errealitate iraunkorra eraiki behar dugu, bere kabuz funtzionatzeko gai dena eta pertsona eta erakundeen gorabeheren ginetik dagoena.

4.- Sentsibilitate handia eduki behar da hizkuntzaren tratamenduari dagokionez. Hizkuntzak trukatzeko modua arina izatea eta komunikazioa erraztea da helburu.

5.- Jarduerak turismo alorrean sartzea. 5.- Funtsezko gaia da mugaz gaindiko bizitzaren garapenean, izan ere, gune horiek oso erakargarriak dira turismoarentzat, bereziki, kirol helburuak edota helburu aktiboak dituzten jarduerari dagokienez.

6.- Nor da harremanen sustatzailea. Ayamonte-ren kasuan, ekimen tekniko batetik abiatzen dira, Espainiako eta Portugaleko estatuen arteko erabakian oinarritua eta Andaluzia eta Algarve-ren arteko lankidetzaren bidez garatua. Kirol alorrean izandako hartu-emanak beste hartu-eman batzuk eragin ditu kulturaren beste alor batzuetan.

Beste eremu batzuetan, Euskal Herrian adibidez, ekimenak antzinakoak dira eta kirol egileetatik abiatzen dira (klubak eta kirol federazioak). Denbora pasa ahala, erakundeek esku hartu dute gai horretan eta lankidetzaren zuzena sortu da udalerrien, Foru Aldundiaren, Kontseilu Orokorraren, eta Aquitania eta Euskadiko gobernuen artean.

7.-Finantzaketari dagokionez, iturri bat baino gehiago daude: Erakundeak, babesle pribatuak, Interreg bezalako Europako programak, jardueretan parte hartzen dutenen ekarpenak, eta abar.



8.- Jarraipenak oinarri juridiko egonkor batean oinarritu behar du: Beste alor sozial batzuetan (adibidez: osasun laguntza, zergak, garraioak, hezkuntza, larrialdiak, kultura eta turismoa) oso garatuta dauden mugaz gaindiko espazioetan lankidetzak bultzatzeko hitzarmen europar bat dago. Erreferentzia gisa, oinarri juridikoa hor dagoela esan behar da, adibidez, Euskal Herrian eta Atlantiar Pirineoetan:

- Espainia eta Frantziaren arteko Baionako Tratatua
- Akitania eta Euskadiren arteko lankidetzak erabakia
- GFA/CG64 lankidetzak hitzarmena.

9.-Antzeman da, aldi berean, oztopo handiak daudela kirol jardueren garapenean, batez ere lehiaketakoen esparruan, izan ere, federazio sistemak araudi "pribatuak" ditu eta araudi horiek ez dute kontuan hartzen mugaz gaindiko espazioak (nazionalitate printzipioa federazio baimenaren oinarria da); beraz, ez dator bat mugaz gaindiko jardueren bereizitasuna aintzat hartzeko beharrezkin.

10.- Eurosarearen barruan sakonki aztertu beharko litzatekeen proposamen berri bat aurkeztu da, hau da, "mugako herritarraren" irudia garatzea (irudi hori gizartearen beste alor batzuetan aurki daitezke eta kirol alorrera eramateko aukera dago).

11.- Mugaz gaindiko jardueren sustapenari buruzko gaia proposatu da: nor izango da egilea?

Sustatzaile publikoak eta pribatuak bateragarriak dira gunek bakoitzeko errealitateen arabera. Ondorio gisa esan dezakegu posible dela elkarrekin lan egitea. Adierazi da Andaluzian kasua berezi bat antzematen dela, hau da, entitate pribatu gutxi daudela eta, ondorioz, administrazioak sustatzaile gisa aritzen direla.

12.- Mugaz gaindiko kirol jarduerak eragile sozioekonomiko bihurtu daitezke eta bihurtu behar dira, batez ere udal mailan, baina arazo bat daukagu, ez dakigula nola neurtu eta nola kuantifikatu eraginak.

13.- Garraioa funtsezko elementutzat jotzen da mugaz gaindiko espazioetako jardueretan pertsonen partaidetza bultzatzeko.

Azkenik, Europari begira pentsatu behar dela adierazi zen. Gainera, mahai gainean honako gai hau utzi zen: nola eraman gorabehera horiek Europako Batzordeko kirol gobernura eta zer lan egin behar den aipatu gorabeherak errealitate bihurtzeko.

Beraz, gogoratu behar da gai hori Kirolaren Eurosarearen sorrera garaiko helburuetako bat dela eta ahalegin guztiak egingo direla kezka horiek europar erakundera eramateko.



eurored del deporte

COMARCAL
CONSELL DE L'ALT
EMPORDÀ

